

AUTOMEDIKAZIOA GAZTEEN ARTEAN



1. LABURPENA

Automedikazioa medikuaren edota farmazeutikoaren aholkurik gabeko eta errezeta gabe medikazio-hartzea da. Portaera hori oso hedatuta dago mundu osoan, eta batez ere ikasle gazteen artean, 15 eta 18 urte artean. Hala ere, badira beste herrialde batzuetako biztanleen automedikazio-jokabideei buruzko azterlanak, ikerketa honi guztiz kontra egiten diona. Baina, datu erlatibo gutxi daude.

Gure helburua gazteengan automedikazioaren datuak jasotzea, hauetaz jabetzea eta ondorioak erakustea da. Ohitura hau oso hedatuta dago gure gizartean, eta kezkarria da, oso arriskutsua izan daitekeelako. Gero ikusiko ditugun datuek islatzen duten bezala, inkestatutakoen, 40 ikasle, gehiengo bat noizbait automedikatu da edo medikatzen dira. Medikazio edo sendagai hauen artean analgesikoak eta antibiotikoak daude.

Medikamentu hauek farmaziatik lortzen dituzte, nahiz eta askorentzat errezeta behar, eta beraz farmaziek salmenta ilegalak egiten dituzte askoetan.

1. ABSTRACT

Automedication is taking medication without the advice of a doctor or a pharmaceutical and without a prescription. This behavior is widespread around the world, especially among young students between ages of 15 and 18. However, there are studies of the automation practices of the inhabitants of other countries; there is little relative data.

Our goal in young people is to collect automation data, take these and show the consequences. This custom is very widespread in our society, and it is troubling because it can be very dangerous. As the data we'll see later will reflect, 40 students from the inquest, a majority have been automedicated at some point. Among these medications are analgesics and antibiotics.

These medicines are obtained from pharmacies, though most of them require prescriptions, so pharmacies often make illegal sales.

2. ZER DA AUTOMEDIKAZIOA

Automedikazioa medikuaren edota farmazeutikoaren aholkurik gabeko eta errezeta gabe medikazio-hartzea da.

Farmazietan medikamentu batzuk errezetarik gabe eman daitezke. Medikamentu horiek salmenta libreko sendagaiak, zuzeneko salmentako sendagaiak edo errezetarik gabe saltzeko sendagaiak ere deitzen dira. Sendagaiak mediku-errezetapean baino ez dira eman behar farmazian, farmazialariak salmenta libreko medikamentu bat gomendatzen duenean izan ezik.

Automedikazioa gure gizartean oso ohikoa da, eta ohitura izan arren arrisku asko ere baditu. Automedikazio arduratsua komenigarria izan daiteke sintoma txikiak tratatzeko erabiltzen bada, hala nola mina, sukarra, urdailaren azidotasuna eta abar, eta denbora mugatu batez.

3. GAZTE ETA HELDUETAN

Gaur egungo , biztanlerian oso ohikoa da automedikatzeko ohitura, batez beste %72,5 egiten dute jarduera hau. Balio hori urtero igotzen ari da.

18 eta 35 urte bitarteko gazteen artean, automedikatzeko arrazoietakoa bat minaren eta sintoma arinen tratamendua da. Analgesikoak dira gehien erabiltzen direnak (paracetamol, ibuprofenoa...).

Ikerketa askok erakusten dute nerabe eskolatuen % 82,2ak automedikatu egiten direla. Emakumeak % 87,1ak dira eta gizonak % 76,6ak. Establezimenduari dagokionez, ez dago alde handirik datuen artean. Ikasle gehienek medikuaren agindurik gabe kontsumitzen dituzte sendagaiak behar dituztela uste dutenean. % 42,4ak automedikatu egiten da, medikuarenera jotzea beharrezkoa ez dela uste dutelako, sintomak ez baitira larriak.

4. ZERGATIK EDOTA ZERTARAKO

Egindako inkestaren arabera, eta beste ikerketetan oinarrituta, ehuneko gehiengoak erabakitzen du automedikatzeari norberaren jakin-minaren konfiantzagatik. Pertsona hauek beraien kabuz ikasitakoan edota entzundakoak konfidantza dute, eta sendagaia beraien kabuz hartzen dute. Beste ehuneko oso handi batek sintomen larritasun faltagatik egiten dute. Buruko min ahul batengatik, adibidez, ez direlako joango medikuarenera errezeta bila, farmazian gabe lortu daitezkeelako.

Inkestatutako gehienek, %45 inguru, automedikaziora jo dute min ahulak ezabatzeko. Beste %7 batek antibiotikoak lortu eta erabili dituzte errezetarik gabe. Eta beste ehuneko txikiak, gripearentzako, alergiarentzako, antsietaterako, edo bitaminak hartu dituzte

5. ABANTAILAK ETA DESABANTAILAK

5.1 ABANTAILAK

Osasun arazo txikiak arintzea edo konpontzea modu autonomoan eta medikuen lanaren osagarri gisa egin daiteke. Pertsonen autonomia eta erantzukizuna areagotzen da osasuna zaintzeko orduan. Gainera, itxaronaldiak, denbora-galerak eta abar saihesten dira, larriago daudenei txanda emanaz, eta, osasun-sisteman laguntzen du.

5.2 DESABANTAILAK

Ospitaleko larrialdien % 10 inguru sendagaien erabilera desegokiak eragiten ditu. Desabantailetakoa bat, adibidez, antibiotikoen gehiegikeriak erresistentzia bakterianoak agertzea sustatzen du, eta horrek tratamendua beste antibiotiko batekin hastea behartzen du beti, honela beste antibiotiko ezberdin batekin gauzak konplikatzea ere ekar dezake:

1. Toxikotasuna: albo-ondorioak, kontrako erreakzioak...
2. Eraginkortasun eza, egokiak ez diren egoeretan erabiltzen direlako.
3. Mendekotasuna edo adikzioa.
4. Prozesu kliniko larriak ezkutatzea eta, ondorioz, diagnostikoa eta tratamendua atzeratzea.
5. Pertsonak hartzen ari den beste sendagai edo elikagai batzuekiko interakzioak.
6. Antibiotikoekiko erresistentziak.

6. GURE INKESTA

37 pertsonako lagin bateko inkesta bat egin dugu datu zehatzak izateko gure inguruko pertsonetikiko. Gure ikastolako, Zurriola Ikastolako, Batxilergoko jendeari egin zaio inketsa *google imprimaki* baten bidez, 16 eta 18 urte bitarteko gazteak izan dira parte hartu dutenak, denak gipuzkoarrak.

6.1 GALDETU DUGUNA

37 gazteetako lagin batean egin dugun inprimaki honen erantzunak hauek izan dira; gehiengoak Emakumezkoak dira (%62.2) eta beste gutxienezkoak Gizonak (%37.8). Hauen artean, automedikatu dira %78,4-a eta beste %21.6a ez dela inoiz automedikatu esan dute. Egin dutenen artean, honako datuak jaso ditugu:

Lehenengo galdera, **noiz izan den automedikatu den azken aldia izan da**. Lehenago edo duela asko egin dutela %29.7ak erantzun du, aurreko hilabetean automedikatu direnak %16.2a eta hilabete honetan egin dutenak %16.2a ere izan da. Barrurago sartu gara eta hilabete honetan egin dutenek ere aurreko astean egin dute eta hauek %21.6a izan da, bestalde aste honetan automedikatu direnak %16.2a izan dira.

Bigarren galdera, **zein izan zen hartu zuten medikamentua**, honek erantzun ezberdin asko jaso ditu: Bitaminak %7.6, Analgesikoak %43.2, Antibiotikoa %18.9, Antihistaminikoa %9.3, Antigripala %8.1, Antsiolitikoa %8 eta Digestiboa %4.1.

Hirugarren galdera, **nondik lortu duten medikazioa**, honek hiru aukera izan zituen: Internetetik lortu dutenak %5.4a izan dira, Lagun batek edo familiak lortutakoa %27ak eta azkenik Farmaziatik lortu edo erosi dutenek % 67.6 izan dira.

Laugarren galdera, **nola dakiten medikazio horren erabilera** izan da, galdera honek ere lau erantzun posible zituen: Telebistako albisteak %2.7a, Irratiko albisteak %2.7a, Interneten begiratuta %4a eta Lagunek edo familiak esandakoari erreparatu dutenek %83.8a izan dira.

Bosgarren galdera, **zergatik automedikatu diren eta zergatik ez diren medikuarenera joan** izan da. Hemen hiru erantzun ezberdin jaso ditugu: konfiantza izan dutelako beren oroimenaz %48.6ak erantzun du, denbora falta izan dutelako medikuarenera joateko %5.4ak erantzun du eta azkenik sintomen larritasun faltagatik ez direnak joan %45.9a izan da.

6.2 ONDORIOAK

Galdetegi honetatik lortu ditugun datu guzti hauekin hainbat ondorio atera ditugu:

Lehenik eta behin, Gazteetan gehien automedikatzen den lagina emakumezkoena dela eta gizonek ez dutela hainbesteko joerarik automedikatzeke. Bestalde, automedikatzea oso ohikoa dela ondorioztatu dezakegu, izan ere, azken aldian edo aste honetan egin dutenen portzentaia oso altua da eta lehenago edo duela asko egin dutenena ez da hain indartsua, hiru laurdenek baino gehiagok egin dute azken aldian eta soilik %21ak egin du duela asko. Gainera, gehien hartzen den

medikamentua analgesikoa da, hauek min leunak (tripako mina, buruko mina, eztarriko mina,...) kentzeko edo sendatzeko dira eta ez dira hain arriskutsuak beste medikamentu errezetadunekin konparatuta, hauen erabilera nahiko ohikoa delako.

Horrez gain, gehiengoak farmaziatik lortu duela esan du eta familiak erreparatutako erabakietan hartzeko erabaki du, gaur egungo gazte gehiengoak familian esandakoari egiten dio kasu eta forma legalean lortzen ditu medikamentuak, izan ere hauek normalean errezeta gabekoak dira eta erraztasun handia dago edozein farmazian lotzeko.

Azkenik, zergatik atomedikatu diren eta zergatik ez diren medikuarenera joan galdetu genuen, hemen ere hiru erantzun ezberdin jaso ditugu: lehengoa, beren oroimenaz konfiantza zutenek gehiengoa izan dira, egia da gaur egun asko dakigula informazioa lortu dugulako, beste gehiengoak larritasunik ez zuelako ez ziren joan eta azkenik eta gutxienekoak denbora ez zutelako izan ez ziren joan.

7. BIBLIOGRAFIA

(Complicaciones Asociadas a La Automedicación Y Sus Efectos Adversos En Los Adultos Jóvenes Que Acuden Al Centro De Salud Huaca, n.d.)

(INVESTIGACIÓN DEL IMPACTO DE LA AUTOMEDICACIÓN EN ADOLESCENTES, n.d.)

(Principales Causas De Automedicación En Estudiantes Del área De La Salud, 2019)

(Riesgos De La Automedicación, n.d.)


(Automedicación En Estudiantes De Una Residencia Universitaria En Chillán, Chile, n.d.)

(Hábitos De Automedicación En Estudiantes Universitarios, 2016)

8. ERANSKINAK


zein da zure generoa

40 erantzun




zenbat urte dituzu?

40 erantzun



Noiz bait automedikatu zara?


40 erantzun



Kopiatu

nongoa zara?


40 erantzun



Kopiatu

Noiz bait automedikatu zara?

40 erantzun




Kopiatu

Noiz azkeneko aldiz?

40 erantzun

 Kopiatu




- aste honetan
- aurreko astean
- hilabete honetan
- aurreko hilabetean
- lehenago

zer zen?

40 erantzun

 Kopiatu




- ansiolitika (antsietaterako)
- antibiotikoa
- antisorgailua (haurdun ez gelditzeko e...)
- digestiboa
- antigripala
- antihistaminikoa (alergiarentzako)
- analgjesikoa (min aruntarentzat)
- bitaminak

▲ 1/2 ▼

zergatik ez zara medikuarenera joan eta automedikatu zara?

40 erantzun

 Kopiatu




- konfiantza (norberaren jakinminean)
- denbora falta medikuarenera joateko
- sintomen larritasun falta

nondik lortu duzu medikazioa?

40 erantzun

 Kopiatu




- internetetik
- laguna, familia
- farmaziatik (errezeta gabe)

nola dakizu medikazio horren erabilgarritasuna?

40 erantzun

 Kopiatu



- TVko albisteak
- irratiko albisteak
- internet
- lagunak edo familiakoak